

EUSKAL PRESOAK. Didier Agerre eta Jose Luis Turrillasek 50 egunez gora daramatzate zigor ziegan protestatzen

Fleury Merogiseko presoak zigor ziegetan daude, egoera aldatu arte

5. moduluan ez dadin euskal presorik egon eskatzen dute, hango egoera oso gogorra delako

Eneko Bidegain | BAIONA

Fleury Merogis espetxeko 21 euskal preso zigor ziegetan daude joan den astetik; 5. moduluan ez dadin gehiago euskal presorik egon eskatzen dute. Modulu horretan orain bi preso daude: Didier Agerre zazpi hilabete hauetan, eta Jose Luis Turrillas duela urte bat baino

gehiago. Modulu hori, ordea, epe laburreko egonaldietarako zuzendua da: bizpahiru hilabeterako, asko jota. Presondegiko egoera bertze moduluetan baino gogorragoa dela salatu zuen atzo Etxerat elkarteak.

Modulu horretako «toki txarrak, ziega zikinak, ibiltoki lohi-tsu eta txikia, janari txarra, zaintzale bortitzak» eta abar aipatu zituen Agerrenen amak. Modulu horretan ez dago kirol zelairik, eta ez da aktibitatearik antolatzen epe luzerako presoentzat.

50 egunez zigor ziegan

5. moduluan dauden bi euskal presoek ez dute gehiago han egon nahi, eta protesta gisa zigor ziegetara igorri zuten beren burua. Badu 50 egun baino



GAIZKA IROZ

Etxerat elkarteak Fleuryko euskal presoek egoera salatu zuen, atzo, Baionan.

gehiago han direla, eta ez dute ateratzeko xederik, 5. modulutik joateko ez bada. Espetxeko bertze 20 presoak ere juntatu zaizkio Agerre eta Turrillasen protestaldiari. Preso guztiak bi modulutan elkartzea aldarrikatzen dute. «Beti hitzeman zaie euskal presoak elkartuko dituz-

tela. Bada urte bat hitzematen dutela, baina hitza ez da betetzen», salatu zuen atzo Etxerat-ek.

Horrez gain, bisitaldi bikoitzaren eskubidea galdetzen dute. Familiek larunbatetan igotzeko aukera baizik ez dute eta, ondorioz, posible baino

denbora gutxiago dute presoaren bisitatze. Oren erdiko bisita bikoiztea eta oren batekoa bihurtzea nahi dute.

Etxerat-ek hitzordua eskatu dio Fleury Merogiseko zuzendariari. Asteburuan, bestalde, autobus bat igoko da, espetxeko presoekiko elkartasunez.

LABURAREN

«Jazarpen bortizkeriaren biktimei» elkartasuna adieraziko die BAK-ek bihar eta etzi, Agurainen

Bakearen Aldeko Koordinakundeak «jazarpen bortizkeriaren biktimei elkartasuna adierazteko» hainbat ekitaldi antolatu ditu aste-buru honetarako, Agurainen (Ara-ba). Bihar 18:30ean Xabier Deopek hitzaldia eskainiko du udaltxean, eta 19:45ean elkarretaratze isila egingo dute San Joan plazan, *Elkarrekin askatasunaren alde* lelopean.

Espainiako Kongresuan aho batez onartu dute Kontzertu Ekonomikoaren lege proiektua



EAEko Kontzertu Ekonomikoaren lege proiektua, haren lege organiko izaera eta bost urterako kupoa zehazteko metodologia aho batez onartu zituen atzo Espainiako Kongresuak. Cristobal Montoro Ogasun ministroak foru aldundiek izandako

jarrera goratu zuen, «bereziki Ramon Rabanera Arabako ahaldu nagusiarena», eta «historiako Kontzertu onena» dela berretsi zuen. EAJko eta EAKo ordezkariak oniritzia eman zioten, baina EAEk Europako erakundeetan parte hartzeko aldarrikapenari eutsi egingo diotela adierazi zuten.

Barne Ministerioak irakasleekin tutoretza zuzenak izatea debekatu die EHUKo ikasle presoek

Euskal Herriko Unibertsitateak ikasle presoekin zituen tutoretzak bertan behera geratu direla jakinarazi zuen atzo EILASEk. Barne Ministerioak Espetxe Zuzendaritzak EHUri igorritako gutun batean irakasleek ikasleei egin ahal dizkieten bi bisitaldiak debekatu egin dituela salatu du sindikatuak. Aurrerantzean, harreman idatziak bakarrik izango dituzte.

Joseba Oleaga eta Xabier Oregi presoek omenaldiak gaur, Bilbon eta Bergaran

Joseba Oleaga preso ohia omen-duko dute gaur Bilbon. Euskal presoek eskubideen aldeko manifestazioa izango da, Santiago Plazan, 20:00etan, eta ondoren herri afaria. Oleaga orain hiru aste geratu zen aske. Bergaran, Xabier Oregi preso omen-duko dute. Gaur 20:00etan giza katea izango da, eta 22:30etan Benito Lertxundiren kantaldia, pilotalekuan. Igandera-ko, mendi martxa antolatu dute.



DAVID AGUILAR / EFE

Gorka Espiau, Maite Elizondo eta Bittor Aierdi, atzoko agerraldian.

ELKARRI. Hiri ibilaldia antolatu du biharko Gasteizen, arratsaldeko seietan

Bake Konferentzia arrakastatsua izateko «beste ahalegin bat» eskatu die Elkari-k herritarrei

E. Begiristain | GASTEIZ

Elkarri-ko koordinatzaile nagusi Bittor Aierdik «beste ahalegin bat» eskatu zien atzo herritarrei, Bake Konferentziak arrakasta izan dezan, alegia, indar politikoen arteko gutxieneko akordioa lor dadin. Adierazpenok Gasteizen egin zituen, Elkarri-ren Bake Konferentziaren alde egingo diren mobilizazioen aurkezpenean. Aierdik azaldu zuenez, Bake Konferentzia-

ren amaiera datorren ekaina arte atzeratu da, «gutxieneko» akordio bat lortzea posible ikusten dutelako; baina horretarako «gizartearen bultzada» beharrezkotzat jo zuen.

Elkarri-ko koordinatzailearen aburuz, Konferentziaren helburu nagusia oraindik lortzeke dago: «Bakearen eta berdintasunaren aldeko akordio alde anitzetakoa lortzea». Eta akordio hori posible egiteko, Elkarri-k euskal gizarteari, eta modu

berezian arabar eta gasteiztarrei, «laguntza» eskatu die.

Aierdiren irudiko, herritarren mobilizazioa beharrezkoa da «giza eskubideen babesa, elkarbizketa eta akordioa» erdiesteko, eta, horregatik, Donostiako martxa «arrakastatsua» ikusita, beste hiri ibilaldi bat egingo dute bihar Gasteizen. Elkarri-ren ibilaldia arratsaldeko seietan abiatuko da, Armentiatik, eta ordubete geroago amaituko da, Foruen Plazan.